

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Hasierako onespena ematea 8/2024 kreditu gehigarriaren espedienteari

Udalbatzak 2024ko azaroaren 28ko ohiko bilkuran erabaki zuen hasierako onespena ematea aurrekontua aldatzeko 12/2024 espedienteari (8/2024 kreditu gehigarriaren modalitatea).

3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako espediente hori hamabost egun baliodunez izango da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da kreditua gehitzeko espedientea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Berantevilla, 2024ko azaroaren 28a

Alkatea

ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL